

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

390 zb.
www.getxo.eus

>> 2024ko Ekaina



Bizi

Uda

Solidarioa



BizkaiaGara
Egin ezazu - Tiempo de acción

Bizkaia EDE bbkE

Uda honetarako esperientzia
paregabeen bila zabilta? >>>>



Nabarmen^{tzekoak}

> Bizi uda solidarioa BizkaiaGara-ren eskutik

> Gazte Dramak "Lo que callan los patios" aurkeztuko du RKEn

> "Gidabaimena euskaraz" kanpainaren beste edizio bat abian



Gazte Dramak “Lo que callan los patios” aurkeztuko du RKEN

Romo Kultur Etxeak ostegunean, hilak 20, arratsaldeko 19:00etan, *Lo que callan los patios* antzezlan hartuko du, Gazte Drama taldearen eskutik. Proiektu hau Algortako Gazteleku burutu da azken hilabeteetan eta 11 eta 17 urte bitarteko 15 pertsonak parte

hartu dute. Clown teknikak, pantomima eta gorputz-adierazpena erabili ditu biztanleria gazteena bullyingaren inguruan sensibilizatzeko. Dinamizatzailea Sonya Castro izan da, arte eszenikoetan eta gorputz adierazpenean aditua. Sarrera doakoa izango da.

Gazteren “memeak” zurrumurruren kontrako ikuspegia lantzeko

Udalak sustatutako Getxo Antirrazistako gazte taldeak *meme* batzuk landu ditu azken hilabeteotan, zurrumurruren eta arrazakeriaren aurkako ikuspegiari heltzeko eta sustatzeko. Helburua hausnarke-

tara bultzatzea eta sare sozialetan ikuspegi hori zabaltzea izan da, umorean oinarritutako irudien bidez. *Memeak* Getxo Antirrazistaren Facebook eta Instagram sareetan daude.



Pertsona zuriek arrazakeria pairatzen dutela entzuten duzunean

Jarduera talde horren zurrumurruren aurkako lanaren barrukoa da, eta horretan parte hartu nahi duten udalerriko gazte guztientzat irekita dago. Interesatuak gizarte sareen bidez jar daitezke harremanetan taldearekin edo antirumores@getxo.eus helbide elektronikora idatzi.

BEKAK SARIAK

* **Bekak:** Bilboko Arte Eder Museoa–Gondra Barandiaran Fundazioa. Gazteak museoko hainbat arlotan prestatzeko zazpi beka, gaitasun berriak eskuratzeko aukera emateko. Programa 2024ko urriaren 1ean hasiko da eta bederatzik hilabete iraupena izango du. Zuzkidura: 500 euro hilean. Deialdia hilaren 16ra arte egongo da zabalik. Tel.: 944 396 060. <https://labur.eus/m6kLb>

* **Beirazko ontziak diseinatzeko lehiaketa**, eskola ofizial batean edo Estatuko edo Portugalgo unibertsitate batean (Diseinua, Ingeniaritza...) ikasten ari direla egiaztatzen duten ikasleentzat. Banaka edo bikoteka lehiatu daitezke. Saria: Milango “Salone del Mobile”ra bidaia. Diseinuen banaketa: 14ra arte. <https://masterglass.vidrala.com/bases-concurso/>

Romoko Gaztelekuaren programazioa Ekaina

GureGune gazteleku

Hilak 8, larunbata: IRTEERA. MENDEXA ABENTURA PARK
Hilak 15, larunbata: JOLASA. SCAPE ROOM
Hilak 19, asteazkena: SUKALDARITZA. IRABIAKIAK
Hilak 21, ostirala: JOLASA. LIBURUTRUKA
Hilak 25, asteartea: TXAPELKETA. FIFA
Hilak 28, ostirala: IRTEERA. HONDARTZA

Algortako Gaztelekuaren programazioa Ekaina

GauEgun gazteleku

Ekainak 8, larunbata: IRTEERA: MENDEXA ABENTURA PARK
Ekainak 12-19-26, asteazkenak: ANTZERKI TAILERRA
Ekainak 15, larunbata: SUKALDARITZA. PANCAKE
Ekainak 20, osteguna: LIBURUTRUKA
Ekainak 22, larunbata: SUKALDARITZA. HANBURGESA
Ekainak 28, ostirala: HALL SCAPE

Bizi uda solidarioa BizkaiaGara-ren eskutik

BizkaiaGara-k, lurraldeko pertsona, erakunde eta erakunde zerbizura dagoen herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan komunitarioarako guneak, uda modu solidarioan pasatzea proposatzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiak, EDE Fundazioak eta BBK-k bultzatutako atari honek hilabete hauetarako programatutako hainbat ekimen solidarioi buruzko informazioa eskaintzen du: auzolandegiak, turismo solidarioa, boluntariotza Bizkaiko erakundeekin, brigadak, aisialdiko eta denbora libre hezitzaileko jarduerak eta familia-harrerak.

<https://www.bizkaigara.eus/> helbidetik udan sortzen diren boluntariotzako behar eta aukera guztiak bildu eta ordenatzen ditu, interesa duen edonork bere oporren zati bat



proiektu solidarioen batean laguntzeko aukera izan dezan.

ekimen solidarioen eduki berria erantsiko du, eta hemen kontsulta daitezke: <https://labur.eus/xXTku>

Datozen hilabeteetan, astero,



“Gidabaimena euskaraz” kanpainaren beste edizio bat abian

Udalak, Erandioko eta Basaurikoekin batera, eta ALKARBIDE, Euskara Zerbitzuen Bilgunearekin batera, beste urte batez, jarri du abian gazteak autoaren gidabaimenaren azterketa teorikoa eta aurten ziklotorrerana ere euskaraz egitera animatzeko *Gidabaimena Euskaraz* kanpaina. Beste berritasun bat izango da Udalaren laguntza gastuen

%80a, gehienez 200 eurokoa, izatera pasako dela ekimenarekin kolaboratzen duten udalerriko sei autoeskoletako batean azterketa egiten duten gazteentzat. 100 euroko hiru txartel ere zozketatuko dira gasolina erosteko (iazko irabazleak argazkian, ezkerretik eskumara Nora Eguzkitza, Maider Atencia eta Martin Puig).



Hiru getxotar, bigarrenak Gurot lehiaketaren finalean

June Camiña, Jare Fullaondo eta Eider Arrizabalaga gazte getxotarren osatutako “Erjeie” taldea bigarren tokian geratu da Gurot euskal galderei buruzko lehiaketaren Bizkaiko finalean. Lurraldeko bi mankomunitatek eta bederatzik udalerrik (tartean Getxok) sustatutako Gurot aplikazio interaktiboaren bidezko lehia-

ketan 12 eta 18 urte bitarteko gazteek hurrengo esparruei buruzko galderak erantzun dituzte: gizartea, natura, hizkuntza, artea, kultura, zientzia, kirola eta aisia. Gazte getxotarren hilabete honetan saria disfrutatzen asmoa dute, hau da, asteburu bat Biarritzen eta han Ozeanoaren hiria bisitatuko dute.